

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Legazpiko Agenda 21eko Foroa Martxoaren 22an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara

Si nunca se habla de una cosa, es como si no hubiese sucedido.
Oscar Wilde

Agenda:

Gaurko tailerlean gidoia baztertu eta hortxe ibili gara bazterretatik eta aztertzen ohi ditugun gaietatik aldentuta. Gaur, Legazpiko neska eta mutilek Eskolako Agenda 21ean egin duten lanaren berri jakin nahi dugu eta, beraz, **Milurtekoaren garapenaren helburuen** gainean hausnartu nahi izan dugu.

Gai korapilatsua benetan. Hala ere, gogoz beterik hartu dugu eta hausnarketa interesgarriak azaldu dira. Gainera, Foroak Legazpiri buruz eztabaidatzen eta hausnartzen den gune honetan gazteen parte hartzea eskatu izan du beti eta horri erantzun ahal izan diogu



Gaur Foroan Eskolako Agenda 21eko neska-mutilen begirada eta ahotsa jaso dugu

Horrela gure artean izan dira Irati Zabaleta eta Raul Ferrero. Beraiek izan dira Legazpiko hiru ikastetxeetan Eskolako Agenda 21ean aurten lan egin duten neska-mutilen ordezkariak.

Biei, **eskerrik asko!** Mila esker etorri zaretelako, parte hartu duzuelako eta zuen lanaren emaitzak azaldu dizkiguzuelako. Eta horrezaz gain, eskerrik asko hausnarketa bat eta gure ekarpenak merezi dituen gai bat ekarri duzuelako. Eskerrik asko bioi!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horiez gain, gaur Foroan izan ditugu kide hauek:

Floren Gutiérrez ♦ Isabel Vallejo (Olazabaleko gurasoa) ♦ Gloria Martínez de Gereñu (Buztingegi) ♦ Pedro Barroso (Nagusilan) ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Manuel Fernández (Nagusilan) ♦ Junkal Fernández ♦ Ana Manzanos ♦ María Ángeles Prieto (Buztingegi) ♦ Miriam Orozko ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Iñaki Mauleón (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ María Jesús Cantero (Nagusilan) ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Maite Odriozola (Haztegi Ikastola) ♦ José Luis Cid ♦ José Ramón Hernández (Nagusilan) ♦ Bixente Garmendia (zinegotzia) ♦ Bakartxo Martínez ♦ Margi Iturriza (Galemys) ♦ Koro Zabaleta (Olazabal institutua) ♦ Irati Zabaleta ♦ Raúl Ferrero ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar (Prometea, SC).

Guztiori, eskerrik asko!!! Gaur, berriz ere, elkarrekin hausnartzen erakutsi eta lagundu diguzue, hori bai pagotxa!

Gertu, prest, hasi. Milurtekoaren helburuak ezbaian.

Zer dira Milurtekoaren helburuak? Zeintzuk dira? Zergatik daude? Askok dira gaiari buruz egin ditzakegun galderak eta ugaria da horri buruz dagoen informazioa. Koka gaitezen, bilerari hasiera emateko bi bideo eman ditugu: lehenengoan, Milurtekoaren helburuak lantzeko eta aztertzeko beharra ikusi dugu eta bigarrenak, gaiaren edukia eta xehetasunak azaldu dizkigu.



Zergatik Milurtekoaren helburuak?

- Munduko baliabideen erdia baino gehiago biztanleriaren %6aren esku daude.
- Biztanleriaren %1ek bakarrik du unibertsitateko ikasketak egiteko aukera
- Biztanleriaren %1ek bakarrik du ordenagailua
- Biztanleriaren %80ak ez du bizitza duin bat.
- Biztanleriaren %70ek ez du irakurtzeko eta idazteko aukera.
- Biztanleriaren erdiak malnutrizioa du.

Zeintzuk dira Milurtekoaren helburuak?¹

- Munduan dagoen desberdintasun-egoerari erantzun nahian, 2000. urte hasieran, *Nazio Batuek* Milurtekoaren helburuak zehaztu zituzten. Ezer baino gehiago asmo onen adierazpena eta 2000-2015 epealdian jarduteko asmoa zen.
- 8 helburu nagusi edo lan-arloak zehaztu zituzten eta, horiek era berean helburu zehatzagoetan banatu ziren. Hauek dira Milurtekoaren 8 helburuak:
 1. Muturreko pobrezia eta gosea errotik kentzea
 2. Oinarrizko irakaskuntza unibertsala lortzea
 3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea
 4. Haurren heriotza-tasa murriztea
 5. Ama-osasuna hobetzea
 6. Hiesaren birusa, malaria eta bestelako gaixotasunak desagerraraztea
 7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea
 8. Garapenerako munduko elkartea sustatzea

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Gaiarekiko hurbilpen horren ondoren, Iratik eta Raulek hartu dute hitza eta aurten Eskolako Agenda 21ean egin dituzten lanen eta azterketen emaitza nagusiak adierazi dizkigute. Hauek dira helarazi dizkiguten ideia nagusiak:

ZER LANDU DUGU?

- Milurtekoaren helburuak aztertzeko Eskolako Agenda 21eko neska-mutilok, hezkuntza-mailaren arabera, inkesta pertsonalizatuak egin dizkiegu ondokoei: Legazpiko bizilagunei, enpresei, sindikatuei, gobernuz kanpoko elkarteei eta erakundeei.
- Horrezaz gain, DBH-3. eta 4. mailakoak eskualdeko gobernuz kanpoko erakundeen gaineko erakusketa ikustera joan ziren Urretxura eta gero gelara etorri ziren egindako lana azaltzera.

ZEINTZUK DIRA LORTU DITUGUN EMAITZAK?

- Galdetu ditugun Legazpiko pertsona guztietatik %21ek ezagutzen ditu Milurtekoaren helburuak eta %79ek ez ditu ezagutzen. Gainera, %90ek ez daki noiz bukatzen den Nazio Batuek helburu horiek betetzeko ezarri duen epea.
- *1. Helburua (muturreko pobrezia eta gosea errotik kentzea) eta 4. Helburua (haurren heriotza-tasa murriztea)* dira, inkesta bete duten pertsonen ustetan, helburu inportanteenak eta baita betetzeko zailenak ere.
- Galdetu diren pertsonak baloratu dituzten esaldi edo ideiak aztertu ondoren, ondokoa esan behar dugu:
 - Adostasun handiena jaso duen esaldia hau da: *"Gure herriko pobreak lagundu nahi nituzke"*
 - Desadostasun handiena honako esaldian dago: *"Pobreak diren pertsonak nahi dutelako dira pobreak"*
 - *"EZ DAKIT"* erantzun duten pertsona-kopuru handiena esaldi honetan dago: *"Ez dakit zer egin dezakedan hegoaldeko herrialdeetan bizi diren pobreak laguntzeko"*
- Lehen zikloko neska-mutikoen haurraren eskubideak aztertu dituzte. Zehazki, hauek dira eskubide baloratuenak: *"maite nauen eta laguntzen nauen familian bizitzeko eskubidea"* eta *"naizen bezala errespetatua izateko eskubidea"*.
- Bigarren zikloko neska-mutikoen pertsona nagusiekin egin dute lan eta Milurtekoaren helburuak lehen eta orain alderatu dituzte. Galdetu diren pertsonen ustetan, Legazpin gehien hobetu den alderdia eskolatzea izan da; eta maila globalean, heriotza-tasa.
- Hirugarren zikloko neska-mutikoen hezkuntzarako eskubidea aztertu dute. Alderdi azpimarragarrien artean honako hau dago: *"maila globalean, oraindik diferentzia handiak daude neskatilek eta mutikoen hezkuntza jasotzeko duten aukerei dagokionez"* Batik bat Afrikan, Asian eta Hego-amerikan".
- DBH-1 eta 2. mailakoak enpresekin eta sindikatuekin egin dute lan; eta beste gauzen artean honako galdera egin die: zergatik da merkeago produktuak Txinatik ekartzea Alemaniatik ekartzea baino? Erantzunen %37k honela diote: *"lan-orduak merkeagoak direlako"* eta %21ek hau esan du: *"zerga gutxiago ordaintzen dutelako"*.
- DBH-3. eta 4. mailako neska-mutikoen gobernuz kanpoko erakundeen lana ezagutzen zentratu dira. Galdera egin dietenean, gobernuz kanpoko erakundeek gehien lantzen dituzten Milurtekoaren helburuak honakoak direla esan dute: *1. helburua: muturreko pobrezia eta gosea errotik kentzea; 2. helburua: Oinarrizko irakaskuntza unibertsala lortzea; 4. Helburua: haurren heriotza-tasa murriztea eta 5. helburua: ama-osasuna hobetzea.*

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Batxilergokoek erakunde desberdinetan egin dituzte inkestak. Horrela jakin dute erakundeek gehien lantzen dituzten helburuak honakoak direla: *1. helburua: muturreko pobrezia eta gosea errotik kentzea eta 7. helburua: ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.*

ETA GUK, ZEIN KONPROMISO HARTUKO DITUGU?

- Egindako lanaren ondoren, Eskolako Agenda 21eko neska-mutilok honako konpromisoak hartu ditugu:
 - *“Milurtekoaren helburuak lortzearen alde antolatuko diren ekintzetan parte hartzea eta ekintza berriak antolatzea” (51 boto).*
 - *“Milurtekoaren helburuen aldeko protesta-ekintzak egin” (17 boto).*
 - *“Hegoaldeko herrialdeak lagundu eta janaria, arropa, botikak, dirua,... bidali” (7 boto).*
 - *“Milurtekoaren helburuak zeintzuk diren eta noizko bete behar diren familiari jakinarazi eta bete” (5 boto).*

ZEINTZUK DIRA UDALARI EGIN DIZKIOGUN PROPOSAMENAK?

- Joan den apirilaren 20an Eskolako Agenda 21eko Foroa egin genuen Udalarekin, alkatearekin eta zinegotziekin. Lortutako emaitzak eta guk hartutako konpromisoak aurkeztu ondoren, honako hau eskatu genion Udalari:
 - *“Gobernuz kanpoko erakundeek ekintzak laguntzea kanpainak eginez, diru-laguntzak eskainiz eta haien proiektuen berri legazpiarrei emanez” (43 boto).*
 - *“Garapena sustatzeko lankidetzari eskaintzen zaion udal aurrekontuaren portzentajea igotzea (gaur egun %0,7 da portzentaje hori)” (37 boto).*

Gainera, Iratik eta Raulek gai horretaz hausnartzea eta gaia lantzea Lurrean bizi garen eta Lurra konpartitzen dugun pertsona guztiontzat oso **garrantzitsua** dela esan digute. Beraz, entzundakoak animatuta, debateari eman diogu hasiera!

Zein da Foroaren iritzia?

Asko eta interesgarriak izan dira gaur Legazpiko Eskolako Agenda 21eko Foroari hitza eman dioten pertsonen hausnarketak eta iritziak. Gaika multzokatuz, hona hemen:



//

- Milurtekoaren helburuak ez dira ezagunak eta horrek harritu egin gaitu. Oso gutxi ezagutzen da gaia eta komunikabideetan eta eguneroko debateetan ez da horretaz hitz egiten. Helburuak lantzeko epea 2015ean bukatzen bada eta 2000. urtean aho batez onartu baziren, zergatik ez zaie publizitate gehiago egin?
- Gaur egun dagoen berdintasun ezaren egoerak munduan dauden interes ekonomiko eta politiko desberdinei erantzuten die: enpresa multinazionalak, banketxeak,... gaur egun dugun eredu kapitalistaren ondorioa da.
- Zonalde pobreetako botere politikoak oso ahulak dira; ustelkeria handia dago.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

//

- Ezin dugu beti baloiak kanpora bota. Elkartasuna hitz inportantea da eta balioa eta zentzua eman behar diogu. Elkartasuna agertzen duten pertsonak izatea gu guztion eta norberaren esku dago.
- Hondamendiak gertatzen direnean eta egoera larrietan, hala nola Haitin izandako lurrikararen kasuan, pertsonen erantzuna azkarra eta ona izaten da (batez ere gobernu kanpoko erakunde bidez dirua emanez).
- Dirua bidaltzen da sarritan baina jokabide okerrak zabaldu izan direnez, jendeak beldurra du eta zalantza du ea ematen duen diru hori *"iritsi behar den tokira iristen den"*. Gauza bera pentsatu zuten Eskolako Agenda 21eko neska-mutikoei, Haitiren egoera larria ikusi ondoren herrialde hura berreraikitzeke diru-bilketa egitea erabaki zutenean.
- Hala ere, ez dugu ahaztu behar laguntzeko modu desberdinak daudela; eta ez bakarrik dirua emanez. Modu berean inportantea da prestatzea, gaitzea eta laguntza teknikoa eskaintzea.
- Badira oso interesgarriak diren lankidetzako esperientziak; adibidez, negozio txikiak martxan jartzeko batez ere emakumei ematen zaizkien mikrokredituak.
- Inportantea da Legazpiko Udaletik laguntzen eta finantzatzen diren lankidetzako proiektuei buruz informazioa ematea; horrela horien berri izango genuke, dirua nora iristen den eta zertarako den jakingo genuke,.....

//

Eta guk, Foroak, zer egin dezakegu?

Galdera mahai gainean dugula, lau taldetan banatu gara Udalari, Foroari berari, legazpiarrei oro har,.... proposatuko dizkiegun ekintza eta proposamenak lantzeko. Eta hauxe da emaitza!

INFORMATU SENTSIBILIZATZEKO

1. Udalak, gobernu kanpoko erakundeekin elkarlanean, laguntzen dituen lankidetzako proiektuak jakinarazi eta ezagutzera eman.
2. Prentsaurrekoa antolatu ikastetxeek egin duten lana ezagutzera emateko.
3. Milurtekoaren helburuak ezagutarazi. Nola? Urola Garaia gida erabiliz eta ale bakoitzean helburuetako bat sartuz; edo Urola Telebistari gonbidapena eginez bere programazioan gaiari buruzko mezu laburrak sar ditzan.

JARDUN

1. Neska-mutikoei elkarretaratze bat antolatzen lagundu eta elkarretaratze hori eskualde mailakoa izan dadila. Horretarako, ondo egongo litzateke agente askoren parte hartzea lortzea: ikastetxeak, Tokiko Agenda 21, elkarteak,...
2. Eskutitza bidali gobernuari, banketxeei,...

HELBURUAK LEGAZPIN

1. Globalki pentsatu eta tokian eta arazoa osotara hartuta jardun. Legazpin ere badira egoera oso zailean dauden pertsonak.
2. Legazpiko pertsona ezezagunak egiten dituzten ekimen solidarioak ezagutzera eman eta babestuz.

UDALA

1. Ikasleekin batera eta neska-mutikoen interesei erantzuneko dien ekintza solidarioen bat antolatu.
2. Garapenari eskaintzen zaio udal mailako laguntza edo laguntza pribatua leku zehatz bati eta modu iraunkorrean eskaini (senidetze bat izango balitz bezala edo Legazpiko auzoa dela pentsatuz). Gainera, ondo egongo litzateke Legazpi herria leku horrekin identifikatzea.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Baten batek esan digu *“denbora gutxi izan dugu”* baina, hala ere, egin den lana emankorra izan da. Eskerrik asko! *Orain beste erronka bat dugu mahai gainean: forma eman behar diegu ideiei!*



Gainera, taldeko bestelako ahotsak eta hausnarketak entzun dira, hala nola: *“gai horien aurrean indar gabe sentitzen zara”* edo *“inportantea da herrian denok elkarrekin lan egitea, agente desberdinak inplikatur: elkarteak, Udala, ikastetxeak, txokoak,... Askok gara eta asko egin dezakezu”*

Foroaren bideoarekin bukatzen dugu

Joxanen ahaleginari eta berak jaso dituen irudiei Udalak prestatu duen testua eta Urola Telebistaren edizioa eta soinua gehitu diegu eta hementxe dugu Legazpiko Agenda 21eko Foroaren bideoa! Euskaraz eta gaztelaniaz ikusi ondoren, taldeak aho batez esan du: **Atsegin dugu! Aurrera!**

Harremanetarako telefono edo helbidea gehitzea falta da, interesatuta egon daitekeen edonork informazioa jasotzeko aukera izan dezan. Beraz, esan eta egin! Hobekuntza hori sartuko dugu eta Urola Telebistarekin adostuko dugu bideoa ematearena. Ea ze berri jasotzen dugun! Aurrerago ikusiko dugu hori.

Arratsaldeko 8:00ak puntu puntuan dira eta, bukatzera goaz! Eta pozik bukatzen dugu gaur erronka zaila genuelako eta, beti bezala, **chapeau!!!**

Eskerrik asko ikastetxeei eta neska-mutilei egin duten lanarengatik; zorionak!!!

Oharra: Alde egitean esan dugun bezalaxe, Urolako GIDAREN hurrengo alean aurreko Foroaren bileran Energiaren Euskal Erakundeak energia aurrezteari buruz eskaini zizkigun jarraibide onei buruzko artikulua argitaratuko da. Interesgarria dela uste dugu eta, beraz, legazpiarrei jakinarazi beharreko kontua dela pentsatzen dugu.